

OSAKIDETZAK SEKTOREAK BIZI DUEN ARAZOEN KONPONBIDEARI EZETZ ESAN ETA LANGILEAK MESPRESATZEN DITU

Mahai sektorialaren hiru bilera nahikoak izan ditu Osakidetzak hurrengo hilaren 10ean azkena burutuko dela jakinarazteko, era honetan negoziazioa itxeko daukan presa erakutsiz eta SMERekin akordiora iristeko duen helburua azalduz, jakinik Mahaiaren %10 dela. Denbora honetan argi geratu zaizkigu Osakidetzaren asmo errealak zeintzuk dira, Mahaia eta SMERen arteko akordioa lortzea, alegia.

Akordio honek, Mahai Sektorialaren markotik at lortuta eta sendagile askok arbitatuta, agerian uzten du, alde batetik, sindikatu medikoaren jarrera sektario eta dirukoia eta euren sektorearen beharrak detektatzeko ahalmen eza, eta bestetik, Osakidetzak orokorrean langileekin duen errespetu falta, mota honetako negoziatioak inposatuz, gehien duenari gehiago emanaz.

ESKn ulertzen dugu Mahai Sektorialak hurrengo puntuak konpondu beharko lituzkela:

- *Lan erritmo eta lan zamen arazoa, 2000 plaza berri baino gehiago sortuz, gaur egun beste kontratu motekin beterik daudenak.*
- *Langile laboral eta estatutarioen arteko desberdintasunak, errelebozko kontratua eta erretiru partzialaren aplikazioaz.*
- *Soldata taulen berrikuspena, izan ere kategoria batzuen eta besteen arteko desberdintasun erretributioboak gero eta handiagoak bait dira. Zerbitzu publiko honetan denok gara ezinbestekoak.*
- *Guztiontzako garapen profesionala, irizpide berdinak aplikatuz langile ororentzat.*
- *Lehen mailako osasunean gertatzen ari den kaosa*
- *Eskubide eta ordainketa guztien hedapena langile ororentzat.*

Hala ere, arduragabekeria erakutsiz, osakidetzak negoziatioa itxi egiten du, geure ereibindikazioei inolako erantzun baikorrik eman gabe eta proposatu dituzten aldaketa eskasak SMERen menpe utziz.

Mahai sektorialean biltzen garen beste sindikatuen jarrera zuzena izan da gure ustez, Osakidetzak planteatzen dituen xantaei aurre eginez, gutxiengokoarekin lortutako akordioak deuseztatuz eta beste mota bateko irtenbide negoziatua eskatuz, azken urteotan pairatzen ditugun arazo sakonei aurre egin diezaiegun.

Osakidetzaren jarrera honek baldin eta ez badugu nahi kalitatezko zerbitzu publikoa ezartzeko eta langileok aspalditik erantzunik gabe ditugun eskaerei erantzuteko gai ez den akordia ezar dezala mobilizatorako bidea besterik ez digu uzten. Eraginkorra eta Osakidetzaren itxikeria hausteko sindikatuen arteko akordio zabala eskatzen duena, denboraren denboraz lortu duguna, eta baita ere pantilaren parte hartze zabala zentroko Asanbladaren bitartez..

Era honetan, ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT, UTESE eta ESKren artean lortutako batasuna eta baita ere ereibindikazio puntuetan zen aurrera egiteko erizpidetan lortutako akordia, oso urrats garrantzitsuak dira mobilizazio sendoak antolatze bidean.

Osakidetzaren xantaiak, kolektiboen orokortasunari erakutsitako errespetu falta, eta sindikagintzaren aurrean ageritako mesprezua tinko mobiliza gaitzen eskatzen dute

**DATOZEN EGUNETAN DEITUKO DIREN
ASANBLADA ETA MOBILIZAZIOETAN
PARTE HARTU!**